



Baionan, 2019ko irailaren 28an

Ikastolen Elkarteko lehendakariaren hitzaldia

Omenaldi hunkigarri honen harira, zorionak eman nahi dizkiot Seaskako ikastola komunitate osoari. Zorionak, urteotan guztiotan egin duzuen lanarengatik, eta zorionak, egiten ari zareten eta lortu duzuen guztiarengatik. Lau mila ikasleren langa gainditu duzue, ikastola bat gehiago ireki duzue aurten, ikastolen mugimenduaren ehun eta hamaikagarrena, gaur elkartu garen eraikin hau ere hazi egin duzue... guztia lan handi bati esker, batere samurra izan ez den bide bat eginez, traba eta enbata guztiei aurre eginez, baina elkarrekin eta elkarlanean, helburu argi batekin: hurrengo belaunaldiei euskara eta euskal kultura transmititzea kalitatezko hezkuntza baten bitartez.

Peio, Paxkalengandik jaso berri duzu proiektu hau gidatzeko lekukoa. Paxkalekin orduak eta urteak eman ditugu buruz buru lanean, eta haren hutsunea izango dugu, lankide, bidaide eta adiskide ere izan dugu eta. Konfiantza osoa dugu, halere, Seaska esku onetan dagoela, eta zeu ere lankide, bidaide eta adiskide izango zaitugu aurrerantzean.

Ikasturtea itxaropentsu hasi dugu Ipar Euskal Herrian, lehen aipatutako arrazoiengatik. Baina, azken aldian, ohituta gaude ikasturte amaiera gatazkatsuetara, gure ikastolen hazkunderaren neurriko irakasle postuak ukatzen dizkigutelako, edo urtero gertatzen den moduan, gure ikasleek Brebeta eta Baxoa euskaraz egiterik ez dutelako. Afera horiek ez dute ikastolen hazkundera gerarazi, ezta jaiotza tasaren jaitzierak ere. Gainera, alde edo moldez, azkenean lortzen dugu irakasle postu gehiago izatea. Aldarrikatzeari eta dagokiguna exijitzeari ez diogu utziko, baina gure eginkizun nagusia bakean egin nahi dugu, gure ikasleei, gure seme-alabei, ahalik eta hezkuntzarik onena eman nahi diegu, euskaratik eta euskaraz.

Gobernu berri bat dugu, bestalde, Nafarroan. Errealistak gara; badakigu ikastolentzat ez dela mesedezko trataturik izango Hezkuntza departamendu berritik. Ez dugu, espero, dena den, gure ibilbidean atzerapausorik, eta gobernu berriarekin ere, aurrekoarekin izan dugun harreman ona eduki nahiko genuke. Nafarroako ikastolek lan handia egin dute eta egiten ari dira, bai euskararen eta euskal kulturaren transmisioan, eta baita kalitatezko hezkuntzaren eskaintzan ere.

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ditugu gure artean. Aprobetxatu nahiko nuke, beraz, azken urteotan egiten ari garen moduan, Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako Hezkuntza Lege berri baten premia azpimarratzeko. Egitasmoa garatzen ari zaretela jakitun gara; adierazi duzue. Baina erritmo bat behar du, etapak bizkorrago osatu behar ditugu, premiazkoa dugulako hezkuntzan ditugun erronka handiei erantzuteko ezinbestekoa dugulako. Oraingoak ez digu jada balio. Publikotasunaren definizio berri bat behar dugu, eskubide eta betebeharrak, hizkuntz ereduak gainditu eta murgiltze sistema bat ezartzea, finantzaketa modu berri bat, aukera berdintasuna –baldintza berdinak– eta ikastetxea hautatzeko eskubidea bermatzea ... eta uneotan ditugun hiru erronka nagusiri



ETORKIZUNERANTZ HEZKUNTZA ERALDATZEN



(hirurek ere lotura baitute) erantzun egoki bat emateko amaraun juridiko berri bat osatzea.

Aurreko ikasturte guztian zehar ohartarazten aritu gara behin eta berriro, ikasleen euskararen erabilerak eta kalitateak behera egin dutela modu larrian. Argi gorriak piztu ditugu, eta alor horretan indarrak biderkatu ditugu ikastoletan, bai erabilera eta kalitatea hobetzeko, baina baita euskararekiko atxikimendua indartzeko ere. Baina hau ezin dugu ikastolok bakarrik bideratu. Hezkuntza sistema osoan lan egin behar da, eta, horretarako, murgiltze eredua ezartzea ezinbestekoa da. Badakigu, noski, Hezkuntzatik bakarrik erantzun ezin daitezkeen faktoreak ere badirela, haur eta gazteen komunikatzeko eta kultura kontsumitzeko ohitura berrietan euskarazko kultur eskaintza ur tantak dira ozeano handi batean. Ordua, da, beraz, hezkuntzak, kulturak eta euskalgintzak bat egin eta herri gisa erantzuteko erronka handi honi.

Aste honetan ezagutu ditugu, bestalde, jaiotza tasaren datu beldurgarriak: aurtengo lehen hiru hilabeteetan %4,3 egin du behera, 3.740 haur jaio ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Datuaren garrantzia ondo uler dezazuen, erreferentzia bat: Gerra Zibileko zifretan gaude! Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ere ez dira aurreikuspen baikorrak. Azken urteotan jaiotza-tasa jaisten ari da urtero, eta horrela jarraituko du hurrengo urteetan; eta neurriak hartu ezean hainbat gela eta ikastetxe desagertzeko arriskuan egon daitezke. Duela egun gutxi, sindikatu batzuei erantzunez esan genuen moduan, egoera honen aurrean aukera desberdinak daude. Horietako bat da gerra ireki bat hastea hezkuntza eragileen artean, sare baten lehentasun osoa aldarrikatuz, desagertzeko arriskua beste sareetako ikastetxeetan kokatuz... Beste aukera bat da, berriz, egoera honen aurrean hezkuntza eragileek neurri adostuak proposatzea, esate baterako geletako ratioen jaitsiera, guztiz egingarria aipatutako jaiotza-tasaren jaitsieraren ondorioz.

Jaiotzen datuok beste adierazle esanguratsu bat erakutsi digute: jaio diren haurretatik hirutik bat ama edo aita atzerritarra dute. Horri erantsi behar zaio ikasturtean zehar gure geletara iristen diren atzerritar jatorriko ikasleen kopurua ere gorantz doala. Azken urteetako joera da hori, eta jaiotza tasaren jaitsierari erantsiz, ikasle talde honen pisua gero eta handiagoa da. Kontuan izan behar dugu familia hauek euskararen eta euskal kulturaren ezagutza oso urria dutela, edo ez dutela horien berri. Gainera, ikasle hauen presentzia ez da batere orekatua izan ikastetxeen artean, eta horrek segregazio arriskua ere ekarri du. Iragan ikasturtean aldaketa bat nabaritu genuen, ez guk nahiko genukeen intentsitatekoa ezta leku guztietan ere, baina atzerriko jatorria duten ikasleen eskolatzea aurreko ikasturteetan baino modu orekatuagoan egin zen. Ikastolen zifra orokorrak bikoiztu egin ziren ikasturte batean. Aurten ere, lehen datuen arabera, bide horretatik goaz. Jaurlaritzak bide honetan sakon dezala espero dugu eta ikasleen eskolatzea gero eta modu orekatuagoan egin dezala.

Ikasleen euskararen ezagutza eta kalitatearen jaitsierari jaiotza tasaren beherakada (1937ko datuetara goaz) eta euskara eta euskal kulturaren ezagutza urria edo batere ez



ETORKIZUNERANTZ HEZKUNTZA ERALDATZEN



duten ikasleen pisua gero eta handiagoa eta segregazio arriskua batuz, ekaitz perfektuaren aurrean gaudela esan genezake? Ez nuke apokaliptikoa izan nahi, baina gerta daiteke denbora gutxian ia hogeita hamar urte atzera egitea.

Baina arriskuak aukera gisa ere har genitzake. Herri gisa jokatzuz gero, lor daiteke horri guztiari buelta ematea. Gure seme-alabentzat Euskal Herri euskalduna nahi dugu, euskaraz bizi, ikasi, jolas, lan egin ahal izango duten herri bat irudikatzen dugu. Ikastolok indarrak biderkatu ditugu ikasleen euskararen erabilera eta kalitatea hobetzeko, gure hizkuntza proiektuak eguneratuz; euskararekiko atxikimendua bultzatzeko Pulunpa egitasmoa sortu dugu. Atzerritar jatorriko ikasleentzako harrera planak gaurkotzen ari gara eta baliabide urriko familientzako beka sistema berria amaitzear daukagu.

Baina badakigu ikastolok ezin dugula hau dena bakarrik egin. Horregatik proposatzen dugu alor eta eragile desberdinen arteko elkarlana, horregatik proposatzen dugu hizkuntza ereduak gainditu eta murgiltze sistema ezartzea, horregatik proposatzen dugu atzerritar jatorriko ikasleen eskolatze orekatua eta harrera plan integralak, herri eta eskualde mailakoak, segregazio arriskuari aurre egiteko euskaratik eta euskaraz integratzea...

Hurrengo urteak gakoak izango dira honetan guztian. Duela hamar urte, hiru urteko gogoeta prozesu bat amaitu genuen, eta horren ondorioa izan zen Ikastolen erakundetze berria Europar Kooperatiba bihurtuz. Horren ondorioa izan zen, baita ere, hamarkada honetan aurrera eraman dugun eraldaketa pedagogikoa. Orain ere abiatzera goaz beste gogoeta prozesu bat ikastolen komunitatean, hurrengo hamarkadari erantzun egokiak emateko gakoak aurkitu eta garatzeko. Gizartea aldatzen ari da, eta aipatu ditut faktore batzuk. Gizarteak hezkuntzari egiten dizkion eskaerak ere bai. Ikastolok hausnartu behar dugu zer nolako erantzunak eman behar dizkiogun gizarte aldaketari, zer nola jokatu behar dugun hezkuntza erakunde gisa, baina baita euskalgintzako eta gizarte eragile gisa ere. Behar den denbora guztia hartuko dugu lan honetan, baina, era berean, denbora hori guztia ongi aprobetxatuko dugu, abiadura hartuta, ez gara geldituko.

Baina ikasturte honetan ere lan ugari dugu egiteko. Pedagogia alorrean, aipatutako eraldaketan sakontzen joango gara, etapa guztietan, Haur Hezkuntzatik hasi, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntza eta ondorengoraino. Material sorkuntzan bezala, pilotajea. Eta ebaluazioan ere sakontzen jarraituko dugu. Gure irakasleen prestakuntzan, elkarrekin eta elkarrengandik ikasiz.

Horretan guztian, gure irakasle eta langileen egitekoa funtsezkoa da. Eta haietzako lan baldintzarik onenak nahi ditugu. Iragan abenduan lan akordioa izenpetu genuen, eta urte honetan Lan Hitzarmen berri bat negoziatzen aritu gara. Urratsak egin ditugu adostasuna lortzeko, eta konfiantza dut laster akordioa ixteko moduan izango garela. Hori da gure desioa.



ETORKIZUNERANTZ HEZKUNTZA ERALDATZEN



Laburbiltzeko, hau da gure eredua, ikastola eredua. Testuinguru sozio-politikoa zein nahi dela, aldekoa edo oztopoz beteta, aurrera eramaten ari garena, beti egin dugun moduan: gure autonomiari, gure izateko moduari jarraituz, herri ikuspegiarekin. Euskal Herri osorako proiektu bat gara, Euskal Herritik eta Euskal Herrirako egina. Hitzaldian aipatu dudun “hutsuneak” betetzea bada gure helburuetako bat eta gure neurrian erantzuna emango diogula izan argi

Testuinguru sozio-politikoa eta herri ikuspegia aipatu ditut. Horiek aintzat hartuta, gure hezkuntza sistema ehuntzen joateko eta herri gisa jokatzeko pausoak eman behar ditugu, Euskal Herrirako hezkuntza sistema propio bat nahi dugu ikastolok.

Bukatzeko, gogoeta bat egin nahiko nuke. Lehen esan dut, euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimenduan eta normalizazioan hogeita hamar urte atzera egiteko arriskuan egon gaitezkeela. Ez nuke nahi hala izan dadin. Orduan, dena den, herri honek, baita ikastolak ere, antzeko egoera soziologiko batean jakin izan zuen modu egokian erantzuten, eta nahi beste lortu ez den arren, urrats handiak egin ditugula ezin ukatu. Gaur egun, jakingo al dugu, orduan bezala, egoki erantzuten? Egoera, gizartea, mundua, ez dira berdinak. Orduko eta oraingo baliabideak ere ez, ordea. Galderari erantzuten astia galdu gabe, ekiten hasteko ordua da, elkarrekin, batera, herri gisa jokatzuz.

Mila esker guztioi.



Baiona, 28 de septiembre de 2019

Discurso del Presidente de Ikastolen Elkartea

Al hilo de este conmovedor homenaje, me gustaría felicitar a toda la comunidad de Seaska. Felicidades, por todo el trabajo que habéis realizado a lo largo de estos cincuenta años, y felicidades por todo lo que estáis haciendo y habéis logrado. Habéis superado la barrera de los cuatro mil alumnos, habéis abierto una ikastola más este año, la ciento once del movimiento de las ikastolas, también habéis ampliado este edificio en el que nos hemos reunido... y todo gracias a un gran trabajo, en un contexto no exento de dificultades, haciendo frente a todos los obstáculos, pero trabajando todos codo con codo, en equipo y con un claro propósito: transmitir a las próximas generaciones el euskera y la cultura vasca mediante una educación de calidad.

Peio [Jorajuria], acabas de recibir el testigo de manos de Paxkal [Indo] para que guíes durante los próximos años este proyecto. Hemos pasado horas y años trabajando hombro con hombro con Paxkal, y sentiremos su ausencia, pues también ha sido un compañero, colaborador y amigo. Pero tenemos gran confianza en que Seaska queda en muy buenas manos y que también tendremos en ti un colaborador, un compañero y un amigo de aquí en adelante.

Comenzamos el año escolar con ilusión en Iparralde, por las razones expuestas anteriormente. Pero, últimamente, nos estamos acostumbrando a unos finales de curso conflictivos, ya sea porque se nos niegan los puestos docentes que nos corresponden por el crecimiento de las matrículas, o como sucede cada año, porque nuestros estudiantes no pueden realizar las pruebas finales de Brevet y Baccalauréat en euskera. Pero estos conflictos no han podido detener el crecimiento de nuestras ikastolas, ni siquiera el descenso de la natalidad ha podido frenarlo. Y de un modo u otro hemos conseguido más puestos docentes. No dejaremos de reivindicar y exigir lo que nos corresponde, pero queremos realizar nuestra labor principal con tranquilidad, para brindarles a nuestros alumnos, a nuestros hijos, la mejor educación posible, desde el euskera y en euskera.

Por otro lado, tenemos un nuevo gobierno en Navarra. Somos realistas. Sabemos que no habrá trato de favor hacia las ikastolas por parte del nuevo Departamento de Educación. Esperamos, en cualquier caso, que no existan contratiempos en nuestra labor, y nos gustaría tener una buena relación con el nuevo gobierno, así como la tuvimos con el anterior. Las ikastolas de Navarra han trabajado duro y están comprometidos con la transmisión del euskera y de la cultura vasca, así como con la oferta de una educación de calidad.

Quiero aprovechar la presencia de representantes del Gobierno Vasco, tal y como venimos haciéndolo estos últimos años, para resaltar la necesidad de una nueva Ley de Educación para Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Somos conscientes de que la Consejería de Educación está desarrollando el proyecto, así lo habéis manifestado públicamente. Pero éste necesita un ritmo, necesitamos completar las etapas con más rapidez, porque necesitamos hacer frente urgentemente a los grandes desafíos de la educación. La actual ley ya no nos sirve. Necesitamos una nueva definición de lo público, superar los modelos lingüísticos y pasar a un sistema de inmersión en euskera; dotarnos de un nuevo sistema de financiación, garantizar tanto el derecho a la elección de centro como la igualdad de oportunidades (en igualdad de condiciones) a la hora de ejercerlo... y necesitamos un nuevo marco jurídico para hacer frente a tres grandes retos actuales, que voy a comentar a continuación.



ETORKIZUNERANTZ HEZKUNTZA ERALDATZEN



Durante todo el curso anterior, hemos advertido reiteradamente que el uso y la calidad del euskera de los alumnos han disminuido considerablemente. Hemos encendido las alarmas, y las ikastolas hemos multiplicado nuestros esfuerzos en esta área, no solo para mejorar su uso y calidad, sino también para fortalecer el afecto de los alumnos hacia el euskera. Pero ésta es una labor que las ikastolas, solas, no podemos encauzar. Es necesario trabajar en todo el sistema educativo y, para lograrlo, es esencial implementar el modelo de inmersión lingüístico. Sabemos, por supuesto, que hay factores a los que no se puede responder únicamente desde el sistema educativo, que en los nuevos hábitos de comunicación y de consumo culturales de los niños y jóvenes las producciones en euskera son como unas gotas en un gran océano. Es hora, por tanto, de que los agentes de la educación, de la cultura y del euskera, unamos fuerzas para hacer frente como país a este gran desafío.

Por otro lado, esta semana hemos conocido unos datos alarmantes referidos a la tasa de natalidad: en los primeros tres meses de este año se ha reducido en un 4,3%, con 3.740 niños nacidos en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Para una mejor comprensión de la importancia de los datos, una referencia: ¡Estamos en las cifras de la Guerra Civil! Tampoco en Navarra ni en Iparralde hay perspectivas favorables. En los últimos años, la tasa de natalidad ha disminuido cada año, y continuará haciéndolo en los próximos años; y si no se toman medidas nos encontraremos con la desaparición de muchas aulas y también de centros escolares. Como hemos dicho recientemente en respuesta a algunos sindicatos, ante esta situación hay diferentes opciones. Una de ellas es iniciar una guerra abierta entre los agentes educativos, proclamando la prioridad total de una red, colocando el riesgo de extinción en las escuelas de otras redes ... Otra posibilidad es proponer medidas acordadas por los agentes educativos, como puede ser la bajada de ratio en las aulas, que es completamente factible como resultado de la disminución en la tasa de natalidad mencionada.

Los datos de nacimientos nos han mostrado otro indicador significativo: uno de cada tres niños nacidos es de madre o padre extranjero. A ello tenemos que añadir que el volumen de alumnado de origen extranjero que está llegando a nuestras aulas durante el curso también está aumentando. Ésta es una tendencia de los últimos años, y a medida que disminuye la tasa de natalidad, el peso proporcional de este grupo de estudiantes aumenta. Tenemos que tener en cuenta que estas familias tienen muy poco o ningún conocimiento del euskera y de la cultura vasca. Además, la presencia de estos estudiantes no es equilibrada entre los centros educativos, lo que también ha traído el riesgo de segregación. En el último año escolar, notamos un cambio, no en la intensidad que quisiéramos, ni en todos los lugares, pero la escolarización del alumnado de origen extranjero fue más equilibrada que en años anteriores. Las cifras generales de las Ikastolas se han duplicado en un año escolar. Este año, según los primeros datos, vamos por el mismo camino. Esperamos que el Gobierno Vasco vaya más allá y haga que la escolarización de este alumnado sea más equilibrada.

Si a la disminución del uso y de la calidad del euskera de nuestro alumnado añadimos la caída de la tasa de natalidad, el aumento del peso proporcional de los alumnos con escaso o nulo conocimiento del euskera y el riesgo de segregación, ¿qué tenemos? ¿Podemos afirmar que estamos ante la tormenta perfecta? No quisiera ser apocalíptico, pero puede suceder que en poco tiempo retrocedamos treinta años.

Pero también podríamos considerar estos riesgos como una oportunidad. Si actuamos como país, podremos darle la vuelta a todo lo anterior. Queremos para nuestros hijos e hijas una



ETORKIZUNERANTZ HEZKUNTZA ERALDATZEN



Euskal Herria euskaldún; imaginamos un país donde puedan vivir, aprender, jugar y trabajar en euskera. Las ikastolas hemos multiplicado nuestros esfuerzos para mejorar el uso y la calidad del euskera de nuestros alumnos mediante la actualización de nuestros proyectos lingüísticos; hemos creado el proyecto *Pulunpa* para reforzar el afecto al euskera entre nuestros alumnos. Actualmente estamos actualizando los planes de acogida para el alumnado de origen extranjero y estamos a punto de finalizar un nuevo sistema de becas para familias con recursos limitados.

Pero sabemos que las ikastolas no podemos llevar adelante este reto solas. Es por eso que proponemos la colaboración entre diferentes actores y ámbitos, es por eso que proponemos superar los modelos lingüísticos e implementar el modelo de inmersión lingüístico, es por eso que proponemos una escolarización equilibrada del alumnado de origen extranjero y planes de acogida integrales, a nivel local y territorial, para abordar el riesgo de segregación mediante la integración en euskera y desde el euskera.

Los próximos años serán clave para abordar esta situación.

Hace diez años, completamos un proceso de reflexión que duró tres años y dio como resultado el nuevo sistema organizativo de las ikastolas al convertirnos en una Cooperativa Europea. Consecuencia de este proceso también fue la transformación pedagógica que hemos llevado adelante durante la última década. En estos momentos estamos a punto de embarcarnos en otro proceso de reflexión en la comunidad de las ikastolas, para encontrar y desarrollar las claves que nos permitan dar las respuestas correctas a los retos de la próxima década. Nuestra sociedad está cambiando; ya mencioné algunos factores. También lo hacen las demandas de la sociedad al ámbito educativo. Las ikastolas tenemos que reflexionar sobre las respuestas que vamos a dar a los cambios que se producen en la sociedad, cómo debemos actuar como institución educativa, pero también como agente social y agente del euskera. Nos tomaremos todo el tiempo que sea necesario para trabajar en esto, pero también haremos un buen uso de ese tiempo, porque, una vez cojamos el ritmo, no nos detendremos.

Pero este nuevo curso también tenemos mucho trabajo por hacer. En el área de la pedagogía, profundizaremos en la transformación pedagógica, en todas las etapas, desde Infantil, pasando por la Educación Primaria y Secundaria y más allá. Seguiremos con la creación de material educativo, y con el pilotaje de nuestros nuevos proyectos. Y continuaremos profundizando en la evaluación y en la formación de nuestros profesores, aprendiendo juntos y aprendiendo unos de otros.

Por supuesto, en todo esto el papel de nuestro profesorado y personal es crucial. Y queremos las mejores condiciones laborales para ellos. En diciembre pasado, firmamos un acuerdo laboral, y este año estamos negociando un nuevo Convenio Colectivo. Hemos dado pasos para llegar a un acuerdo, y estoy seguro de que pronto podremos lograrlo. Ése es nuestro deseo.

En resumen, este es nuestro modelo, el modelo Ikastola. Un modelo que seguimos construyendo, cualquiera que sea el contexto sociopolítico, ya sea a favorable o lleno de obstáculos, como siempre lo hemos hecho: desde nuestra autonomía, desde nuestra forma de ser, con una perspectiva de país. Somos un proyecto para toda Euskal Herria, hecho desde Euskal Herria y para Euskal Herria. Rellenar los "vacíos" mencionados anteriormente es uno de nuestros objetivos y tened claro que responderemos.



ETORKIZUNERANTZ HEZKUNTZA ERALDATZEN



He mencionado, también, el contexto sociopolítico y la perspectiva de país. Con esto en mente, debemos tomar medidas para seguir tejiendo nuestro sistema educativo y actuar como país. Queremos un sistema educativo propio para Euskal Herria.

Finalmente, me gustaría hacer una reflexión. He dicho antes que corremos el riesgo de retroceder más de treinta años en la normalización del euskera y la transmisión de la cultura vasca. No quisiera que así fuese. Entonces, hace treinta años, este país, al igual que las ikastolas, supo cómo responder en una situación sociológica similar, y, a pesar de que no se logró todo lo que quisiéramos, no podemos negar que se ha habido grandes avances. Hoy, como entonces, ¿sabremos responder adecuadamente? La situación, la sociedad, el mundo, no son los mismos. Tampoco lo son los recursos. Sin perder más tiempo respondiendo a la pregunta, es hora de comenzar a actuar juntos, como país.